

**V O L V O** AUTO SUECIA

Zure Gipuzkoako kontzesionarioa

berria

BIZIGIRO

«Gure sagardo berria!»

Euskal Sagardoa jatorri izenak eta Sagardoaren Lurraldeak antolatuta, Sagardo Berriaren Eguna egin dute Astigarragan. En Tol Sarmiento taldeko abeslari Iñigo Etxezarretak abiatu du txotx garaia. Uzta «handia» izan da, eta sagardoa, «lurrintsua».

Sagardo Berriaren Eguna

Iñigo Etxezarreta En Tol Sarmiento abeslaria. Alerrekoa sagardotegiako ardura-dunarekin txotx egiten.

**Enekoitz Telleria Sarriegi**

ASTEASU - 2024KO URTARRILAREN 16A - 16:30

Entzun 00:08:44



Ez dago sagardo bakar bat, sagardoak daude: 106 sagar barietate Euskal Sagardoa jatorri izenaren barruan. Eta sagardogile bakoitzak egiten du berea. Eta geroz eta sagardo mota gehiago daude. Eta horregatik egiten zaie geroz eta zailagoa jatorri izeneko arduradunei eta adituei sagardoari adjektiboak jartzea, baina jarri dizkiote 2024koari ere: «Alkohol graduazio eta gorputz txikiagokoak, eta oso lurrintsuak».

Jar diezaiola bakoitzak bereari gustua eta aroma. Dastagai dago. Hasi da txotx garaia. Astigarragan (Gipuzkoa) aurkeztu dute, eta eszenatoki berrian aurtan: Erribera kulturgunean. Sagardo Berriaren Egunak 31 urte egin ditu, eta jendetza bildu da aurkezpenean. Eusko Jaurlaritzako, Gipuzkoako Aldundiko eta Euskal Sagardoa jatorri izeneko ordezkariak, Xabier Urdangarin Astigarragako alkatearekin batera, eta aurtengo gonbidatu nagusiarekin: Iñigo Etxezarreta En Tol Sarmiento taldeko abeslariarekin. Aloña Beraza kazetariak aurkeztu du ekitaldia, Agin Laburu eta Sustrai Colina aritu dira bertsoan, eta Antton Telleria umoristak sartu dio txotxari ziria: «Onena beti amaierako uzten omen denez, eta sagardotegiko menuarekin konparazioa eginda: esan liteke ni naizela menbrilloa».

Haiekin batera, dozenaka sagardogile eta sagar ekoizle. Erruz egin dute oraingoan ere lana. Eman dituzte datuak: 2023ko uztarekin, 12.000.000 litro inguru sagardo ekoitzi dira Euskal Herrian. Euskal Sagardoa jatorri izenarekin, berriz, 4.000.000 litro sagardo ekoitzi dituzte 50 sagardotegik: Arabako bik, Bizkaiko hiruk eta Gipuzkoako 45ek. Euskal Sagardorako sagarra ekoizten duten sagar ekoizleak 250 dira, eta guztira ia 500 hektarea erabiltzen dira horretarako. 2023 uztan 6.000.000 kilo sagar bildu dira Euskal Sagardorako. «2023ko uzta aurrekoa baino handiagoa izan da kopuruz. Aurreko urtean uzta txikia izan zen, eta espero zen 2023an gehiago jasotzea. Uzta handia izan da, baina urriko beroek zerbait gutxitu dute sagar kopurua», azaldu du Oihana Gainzerainek, Euskal Sagardoa jatorri izeneko presidenteak —aurten utziko du kargua—.

zerbait gutxitu dute sagar kopurua».

OIHANA GAINZERAIN

Euskal Sagardoa jatorri izeneko presidentea

Errituala da sagardotegira joatea hein handi batean, eta baita txotx garaia aurkeztea ere. Sagarrondo bat landatzea dagokio gonbidatuari, eta euria hasi duen une berean aritu da Iñigo Etxezarreta lan horretan, Erribera kulturguneko plazan. Lokaztu ditu majo oinetako zuriak. «Abisatu zidaten, eta ekarri ditut aldagarriak», azaldu dio BERRIari. Ohituta dagoenaren trazar aritu baita Etxezarreta aitzurrean. «Aitak landatu zituen bere garaian 16-20 sagarrondo. Gogoratzen dut 8 bat urte nituela orduan, eta sagarrondoren bat landatu nuela. Ni gasteiztarra naiz izatez, Ekoran asteburuak-eta pasatzen ditut, eta han beti egiten didaten txantxa da hiritarra naizela, eta ez dakidala aitzur bat ere hartzen... Eta, gero, hirian, berriz, herritarra naiz! Badakizu: ez batekoa eta ez bestekoa».



Iñigo Etxezarreta abeslaria, sagarrondoa landatzen, Astigarragan. GORKA RUBIO / FOKU

berak mundu hori, Frantzian Erasmus ikasketak egin zituen garaian: «Frantziako, Kataluniako eta Andorrako lagun kuadrilla bat nuen han, eta Aste Santuan etorri ginen Astigarragara. Geroztik, urtero-urtero elkartzeko gara sagardotegian. Horregatik dauka esanahi berezi bat honek niretzat».

Antton Telleriak zirikatu zuen Etxezarreta, Arabako Errioxakoa izan eta ez ote zuen deskuiduan sagarrondoaren bueltan mahatsen bat landatuko. Onartu du Etxezarretak ardoa dela haienean nagusi, baina horregatik iruditu zaiola «oso keinu polita» paraje hartako talde bat aukeratu izana txotx denboraldiari ekiteko. «Kultura eta tradizio ezberdinen uztarketa gisa ikusten dut hori. Gainera, badago halako alderatze bat: sagardotegiek ospakizunen inguruan batzen dute jendea, eta ETSk ere hori egiten du. Zoriontasun pilula horiek banatzen ditugu».

«Badago halako alderatze bat: sagardotegiek ospakizunen inguruan batzen dute jendea, eta ETSk ere hori egiten du. Zoriontasun pilula horiek banatzen ditugu».

IÑIGO ETXEZARRETA

En Tol Sarmiento taldeko abeslaria

Hori bai: Etxezarretak ere ez du gainditu sagardoaren inguruan iaz BERRIAk Aitziber Garmendiarekin eta Jon Plazaolarekin abiatutako testa. Zer da patsa? «Patsa? Patxadarekin ez dugu lotu behar, ezta?». Sagardoa jotakoan gelditzen diren sagar zatiei deitzen zaie horrela. Zer da ziria? «Ziria deitzen zaio adarrari?». Kupelaren zulotxoa estaltzen duen makilatxoari deitzen zaio horrela. «Suspendituko dut, seguru». Zer da manttoni? «Joder, entzuten dudan lehen aldia da». Sagar mota bat da manttoni. Eta 106 barietate ezberdin daudenez, zer da mozolua? «Beste sagar mota bat da, ezta?». Bai, hala da, bakarra asmatu du. Eta bai, Etxezarretak ere suspenditu egin du.

Amaitu da herriguneko ekitaldia, eta harrera beroa egin diote En Tol Sarmiento taldeko abeslariari Alorrenea sagardotegian. Aterruna baliatuz, sagar dantzarekin agurra, eta sokadantzan parte hartzeko gonbidapena. Elkarrekin sartu dira denak sagardotegian. Dozenaka kamera eta fokuren aurrean bete du Etxezarretak edalontzia. Esan zezakeen: «Sagardotegian, *Zurekin batera*» edo «Sagardotegian, *Aukera berriak*». Baina zintzo demonio eta hutsik egin gabe esan

DATUAK

4.000.000

Egindako sagardoa, litrotan. Euskal Sagardoa jatorri izenaren barruan, 4.000.000 litro sagardo egin dituzte denboraldi berrirako.

6.000.000

Bildutako sagarra, kilotan. Uzta «handia eta berezia» izan da 2023koa. 6.000.000 kilo sagar bildu dituzte. Euskal Sagardoa jatorri izenerako sagardoa egiteko sagarra biltzen duten sagar ekoizleak 250 dira, eta ia 500 hektarea erabiltzen dituzte horretarako.

50

Sagardotegiak. Euskal Sagardoa jatorri izeneko sagardoa egin duten sagardotegiak 50 dira: Arabakoak bi, Bizkaikoak hiru eta Gipuzkoakoak 45.

GAIAK

Gastronomia

Bizimoduak

Eraldatze industriak

Euskal Herria

Gipuzkoa

Euskal Sagardoa

En Tol Sarmiento

Etxezarreta, Iñigo

Ekonomia eta finantzak

Nekazaritza

Bi hamarraldi. Milaka aldi.

aldia. 2025erako 3.000 babesle berri behar ditugu iragana eta geroa orainaldian kontatzeko.

Egin zure ekarpena

IRUZKINAK

Ez dago iruzkinik

Iruzkin bat egin

ORDENATU DATA



INTERESGARRIA IZANGO ZAIZU



LABek lan hitzarmen berria erdiesteko aurreakordioa sinatu du ikastolekin

IRATI URDALLETA LETE



Sindikatuak salatu dute Laudioko osasun etxeko heriotza Osakidetza-ko murrizketengatik gertatu zela

NEREA INTXAUSTI CASTIÑEIRA



Deserosotasuna erresistentzia bihurtuta

MAITE ASENSIO LOZANO



NABARMENDUAK

Gaur

Azken berriak

Entzun BERRIA

Nire BERRIA



Gorka Urbizuk
bakarkako
lehenbiziko diskoa



... ..



Beñat Elizondo:
«Eszenatokia ez
dugu maite: kalea
kantuz jartzea da



No
pa
...

Harpidetu Berriaren buletinetara

Mendia

IKUSI >

Arratsaldekoa

IKUSI >

Goizekoa

IKUSI >

Badok

IKUSI >

Astekaria

IKUSI >

Kinka

IKUSI >

Izena ematean pribatutasun politika onartzen duzu.



Zure posta elektronikoa

Harpidetu



Gaur



Azken berriak



Entzun BERRIA



Nire BERRIA